- Realizar durante el año 2011 una normativa municipal para el desarrollo de ceremonias civiles en el municipio de Laudio de



hartuko bere gain;

• *Laudion hileta zibilak egin ahal izateko 2011. urtean udal araubidea egitea, hileta edo azken agurra egiteko orduan bide hau aukeratu dutenek era horretan egin dezaten.*

Udalaren engaiamendua hileta zibilak aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak jartzeko; lekua edo gune aproposa, baimenak edo udalaren aldetik behar besteko laguntza, gertukoaren agurra duina izan dadin.

JOSU ZABALA ATXA.- Planteamendu hau ekarri dugu hona beharrezkoa ikusten baitugu orokorrean modu erlijiosoan edo nahi duena senitartekoei edota lagunei hiletan agurra emateko era erlijiosoan ondo antolatuta dago. Orduan beharra ikusten dugu era zibilean bidea errazteko hileta zibilak arautzea, hau da prozesu osoa arautzea instituzioen aldetik.

Hemen eskatzen duguna badakigu hainbat udaletxeetan egiten dela dagoeneko, Amurrión, Gasteizen, esate baterako. Hau da gure asmoa, hemen, Laudion gauza bera aztertzea eta martxan jartzea.

TXARO SARASUA DIAZ.- Ulertzen dut azken bi paragrafoak bozkatuko ditugula, eta ez ordenantza-proposamena.

IDAZKARI NAGUSIA.- Ordenantza egiteko proposamena bozkatuko da, mozioan jasotako puntuak aintzat hartuta. Gogorazi nahi dizuet Batzorde Informatiboan aipatu zela proposamena Udalaren aukerak kontuan hartuta formalizatuko zela. Kontua da, baina, jarraitu beharreko ildo zehaztuta dagoela jada mozioan.

JON KARLA MENOIO LLANO.- Hain zuzen, azken bi puntuetan esaten da 2011n zehar Udal Ordenantza bat prestatu beharko dela.

TXARO SARASUA DIAZ.- Kontua da,

aquellas personas que así se les desee despedir en su muerte.

Compromiso municipal de ofrecer los recursos necesarios; local o espacio adecuados, permisos o apoyos municipales para una despedida digna del ser querido.”

JOSU ZABALA ATXA.- Hemos presentado este planteamiento porque vemos que cuando se quiere dar el último adiós a un familiar o a un amigo de un modo religioso, la ceremonia está muy bien organizada. Por lo tanto, vemos la necesidad de legislar los entierros civiles, de que las instituciones regulen todo el proceso, para ayudar en la consecución de las ceremonias civiles.

Sabemos que lo que estamos pidiendo ya se está llevando a cabo en otros Ayuntamientos, como es el caso de Amurrio y Vitoria. Y, por lo tanto, nuestra intención es que aquí en Llodio se estudie la propuesta y se pueda llevar a cabo.

TXARO SARASUA DIAZ.- Entiendo que lo que vamos a votar son los dos últimos párrafos, no la propuesta de la Ordenanza.

SECRETARIA GENERAL.- Se vota la propuesta para la redacción de una Ordenanza teniendo en cuenta los puntos de la moción. Les recuerdo que en la Comisión Informativa se habló de formalizarlo en función de las posibilidades del Ayuntamiento, pero la línea está marcada en la moción.

JON KARLA MENOIO LLANO.- En los dos últimos puntos es lo que dice, que durante el 2011 se realice una Ordenanza Municipal.

TXARO SARASUA DIAZ.- Lo que ocurre es que, con el debate que tuvimos en la Comisión Informativa, entendía que se debía disponer de un local público para este servicio y elaborar la Ordenanza, pero sin pautas



Batzorde Informatiboan izan genuen eztabaidaren arabera, ulertu nuela zerbitzu hori emateko lokal publikoa atondu eta ordenantza idatzi behar zela, baina alde zuzenetik ezarritako pautarik gabe.

Agian gaizki ulertu genuen. Gu ez gaude ados mota honetako ordenantza bat inposatzearekin. Gure bozka arrazoituko dut.

Talde Sozialistak ulertzen du hileta zibilen gaiak gizartearen logika bati erantzuten diola, eta logika horren aurrean ezin dugula ez ikusiarenak egin.

Baina argi zehaztu behar da ordenantzaren xedea. Ez da ekitaldiaren edukia edo hilketa prestatzeko modua, ez eta erlijio- edo kultu-askatasuna babestea. Izan ere, azken eskubide hori bermatuta dago Espainiako Konstituzioan.

Hortaz, Talde Sozialistaren aburuz, zehazki arautu behar dena zera da, herriko bizilagunen eskura jartzea beren beregi udal-lokalen bat.

Gai honi dagokion arau-esparrua behar bezala definituta dago. Udalaren eskumen eksklusiboa da, Espainiako Konstituzioaren 140. artikuluan eta Lurralde Historikoen Legeko 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Izan ere, bi legetestu horien bidez, udalen autonomia bermatu da. Ildo berean, Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 25. artikuluko 2. paragrafoan ezarrita dago hilerrien eta hileta-zerbitzuen gaineko berariazko eskumena.

Horiek horrela, gai hau arautu nahi duten udalek ez diote berariazko ezein arau autonomikori men egin behar.

Beharrezkotzat jotzen dugu hileta zibilak deritzen ekitaldiak antolatzeke erraztasunak ematea. Hileta horiek, azken batean, gure herriko hildakoei omenaldia egiteko eta azken agurra emateko ekintzak dira.

Gu ordenantza bat egitearen alde gaude, bai eta hileta zibilak egiteko gune publiko bat lagatzearekin ere, baina ez gaude ados

preestablecidas.

No sé si no nos entendimos bien. Nosotros no estamos de acuerdo en que se imponga este tipo de Ordenanza. Voy a explicar el sentido de nuestro voto.

En el grupo Socialista entendemos que la cuestión de los funerales civiles obedece a una lógica social a la que no nos podemos sustraer.

El objeto de una ordenanza hay que dejarlo claro. No es el contenido del acto ni la forma de celebración, ni tampoco es objeto de protección la libertad religiosa o de culto, que está garantizada constitucionalmente.

El Grupo Socialista entiende que la regulación concreta es la puesta a disposición de los ciudadanos del municipio de una manera expresa de algún local municipal.

El espacio normativo de este asunto está perfectamente definido, de manera que la competencia es exclusivamente municipal y esta reconocida, así lo dicen el Art. 140 de la Constitución., el Art. 3 de la Ley de Territorios Históricos, que garantizan la autonomía de los Ayuntamientos. En el Art 25 párrafo 2 de la Ley de Bases de Régimen Local se establece la Competencia Específica en materia de cementerios y servicios funerarios.

Los Ayuntamientos que opten por regular esta cuestión no se tienen porque someter a ninguna normativa autonómica específica

A nosotros nos parece necesario facilitar la celebración de estos denominados funerales civiles que no son otra cosa que actos de homenaje y despedida a personas fallecidas, vecinas de nuestro municipio.

Nosotros estamos a favor de la elaboración de una Ordenanza y de posibilitar la disposición de un espacio público, pero no estamos de acuerdo con algunas de las cuestiones que se plantean en la ordenanza. La Ordenanza se debiera elaborar y posteriormente poder presentar aportaciones.



ordenantzán jasotako alderdi batzuekin. Ordenantza idatzi beharko litzateke, eta gero ekarpenak egiteko aukera eman.

IDAZKARI NAGUSIA.- Udal Arautegi Organikoko artíkulu batean zehaztuta dago mozioek ez dutela ez ordenantzarik ez araudirik sorrarazten. Aitzitik, ordenantza idazteko beharra ezartzen dute, eta behin idatzita dagoenean, Legez ezarritako izapidetzeari jarraitu behar zaio. Hau da bidea, beraz: ordenantza idaztea, ordenantza horren berri ematea zinegotziei dagokion batzorde informatiboan, jendaurrean jartzea eta alegazioak aurkezteko aukera ematea. Bide hori egin eta gero, berriro eztabaidatu behar da batzorde informatiboan, eta azkenean, osoko bilkuran aurkeztu.

Esan nahi dudana da testua irekia dela. Ordenantza idatziko da, baina ekarpenak egin ahalgo dira eta, gero, ezarritako prozedurarekin jarraitu.

GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.- Hori da gure asmoa. Gure asmo bakarra da hastea proposatzen dugun ordenantzarekin herritar batzuk nahi duten hileta eskaini ahal izatea, baina nahiz eta proposamenean puntu batzuk aipatu ez dira puntu itxiak. Ez dugu esaten agertzen diren puntuak Ordenantzán agertu behar direnik, ez dugu ezer inposatu nahi.

Gure proposamena guztiz zabala da, eta desioa da eztabaidatzen hastea.

JON KARLA MENOIO LLANO.- Batzorde Informatiboan gure alderdi politikoak zalantzak adierazi zituen. Dena den, aitortu genuen ez genekiela nola egiten diren mota horretako ekitaldiak.

Zalantzak genituen eta ditugu zerbitzu hau eskaintzeko tokirik onenak zein izan daitezkeen erabakitzearen inguruan.

SECRETARIA GENERAL.- Hay un artículo en el Reglamento Orgánico Municipal en el que se especifica que las mociones no crean Ordenanzas ni normativa, lo que hacen es establecer la obligación de redactarla y, una vez redactada, seguir el trámite exigido por Ley. Es decir, elaboración, poner en conocimiento de los concejales la Ordenanza en la Comisión Informativa, proceder a la información pública ofertando la posibilidad de presentación de alegaciones y una vez realizado este recorrido volver a pasarla por la Comisión Informativa para su presentación al Pleno.

Lo que quiero decir es que el texto es abierto. Se elaborará una Ordenanza, se podrán presentar aportaciones y continuar con su procedimiento.

GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.- Esa es nuestra intención. Nuestra única intención es lograr que mediante la ordenanza que proponemos se puedan ofrecer funerales civiles a los ciudadanos que así lo deseen. Aunque en la propuesta vienen recogidos varios puntos, os hacemos saber que no son puntos cerrados. No decimos que los puntos de la Ordenanza deben mantenerse en su totalidad. No queremos imponer nada.

Nuestra propuesta es totalmente abierta y nuestro deseo es que empecemos a debatirla cuanto antes.

JON KARLA MENOIO LLANO.- En la Comisión Informativa nuestro Grupo Político mostró nuestras dudas, aunque también reconocíamos que no sabíamos cómo se celebraban este tipo de ceremonias.

Teníamos y seguimos teniendo dudas sobre cuáles pueden ser los mejores emplazamientos para ofrecer este servicio.

Como bien se ha dicho, esperamos que esto sea el resultado de la discusión que mantengamos sobre la Ordenanza.



Esan bezala, espero dugu ordenantzari buruzko eztabaidan horri buruzko erabakia har dezagun.

Bestalde, oso kezkatzen gaituen kontu bat dago, betiere, gaia ezagutzen ez dugula kontuan hartuta. Hileta mota horiek egiteko moduz ari gara. Esaterako, ez dakigu ekitaldi horietan hilotza bertan dagoen ala ez. Alderdi hori garrantzitsua da, hain zuzen, erantzunaren arabera lokala ere desberdina izan daitekeelako.

Gu batzordearen bileran abstenitu ginen, baina gaurkoan alde bozkatuko dugu, ez diogulako mota horretako ekimen bati oztoporik jarri nahi. Izan ere, gure aburuz, hileta zibila izan nahi duten herritarrek hori aurrera eramateko lokala edukitzeko eskubidea dute.

Edonola ere, zalantzak ditugu, eta ez dakigu zein izan daitekeen lokalik egokiena, batez ere, kontuan hartuta udalaren lokal gehienak beste zeregin batzuetarako prestatuta daudela.

ROSA TORRES CORRES.- Guk argi utzi nahi dugu ados gaudela mozioarekin. Ongi deritzogu eskubide honi, baina aurka bozkatuko dugu, EAEko kideek aurkeztutako mozio guztien aurka bozkatzen dugulako sistematikoki.

Bozkatuta, onartu da aho batez eta botazioaren emaitza hauxe izan da:

Alde: EAJ/PNV (7), PSE-EE (3) eta Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Bobeda, Oihana Gomara Pikaza, Ziortza Uriarte Bilbao eta Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kideak.

Kontra: PP (1).

GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA.

Bertaratutakoek ez dute inolako adierazpenik

Por otro lado, hay una cuestión que nos preocupó mucho, que es, dentro del desconocimiento que teníamos, la manera de officiar este tipo de funerales. Por ejemplo, no sabemos si son actos que se celebran con cuerpo presente o no. Digo esto porque en función de que sea de una u otra manera, se puede pensar en diferentes tipos de locales

Nosotros nos abstuvimos en la Comisión pero, hoy votaremos a favor porque no queremos paralizar una iniciativa de este tipo porque entendemos que es un derecho que asiste a quien desee acogerse a un funeral civil.

En todo caso, volvemos a mostrar nuestras dudas y nuestra preocupación sobre cuál puede ser el local más idóneo teniendo en cuenta que la mayoría de locales municipales tienen asignada otra función.

ROSA TORRES CORRES.- Nosotros queremos dejar claro que estamos de acuerdo con la moción. Nos parece muy bien que exista este derecho pero, votaremos en contra, porque, por coherencia, sistemáticamente votamos en contra de las mociones de miembros de ANV.

Sometida a votación, es aprobada por mayoría, con el siguiente resultado:

A favor: EAJ/PNV (7), PSE-EE (3) y Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Boveda, Oihana Gomara Pikaza, Ziortza Uriarte Bilbao y Josu Zabala Atxa, Miembros No Adscritos.

En contra: PP (1).

CONTROL ÓRGANOS DE GOBIERNO.

Los asistentes no realizan ninguna observación.



egin.

**ERREGU ETA GALDEREN TXANDAN,
HONAKO HAUEK AURKEZTU DIRA:**

Alkateak Osoko Bilkurara bertaratutako lagun bati eman dio hitza. Virgen del Carmen kaleko 9. eta 11. atarrietako bizilagunen ordezkari gisa hitz egingo du.

Egun on.

Virgen del Carmen kaleko 9. eta 11. zenbakietako garajeen jabeen erkidegoak adierazi nahi du nahiago izango genukeela Udaltzatzen Osoko Bilkura honetan parte hartzeko beharra ez izatea. Izan ere, horrek esan nahiko luke ordezkatzan ditudan garajeetako jabeak ez direla ari egun jasan behar duten egoera bizitzen. Gogoan izango duzue, hasiera batean euren jabetzara sartzeko aukera ukatu zitzaizela. Egun, berriz, sarbidea mugatua dute, txandakako aparkalekua ustiatzen duen Grupo Murias enpresak ez dielako sarrera-txartelik aktibatu trastelekuen jabeei. Halaber, garaje-plazen jabeei ez die txartelen kopia egin nahi, eta, beraz, euren plaza erabiltzeko txartel bakarra dute.

Kontua da, baina, plaza batzuetan auto bat baino gehiago aparkatu daitekeela, eta, beraz, hainbat senitartekok izan beharko lukeela plaza erabiltzekoa aukera.

Baina, txartel bakarra badute, nola erabiliko dute plaza familia bereko hainbat kidek?

Argi utzi nahi dut hizpide dugun arazoa udalaren ardura dela. Horregatik, udalari dagokio konponbidea bilatzea eta aparkalekua ustiatzen ari den enpresa behartzea guztiok ezagutzen ditugun baldintzak betetzera. Batez ere, kontuan hartuta Virgen del Carmen kaleko 9. eta 11. atarrietako garajeen erkidegoak bide-zorra aitortuta duela.

EN EL APARTADO DE RUEGOS Y PREGUNTAS SE FORMULAN LOS SIGUIENTES:

El Alcalde otorga la palabra a una asistente al Pleno, que lo hace en representación de los vecinos de la calle, Virgen del Carmen, 9 y 11.

Buenos días.

Desde la Administración de la Comunidad de Garajes de la calle Virgen del Carmen 9 y 11 se quiere dejar constancia en este Pleno Municipal, al que nunca nos hubiera gustado tener que acudir por la situación que están viviendo los propietarios de garajes a los que represento, y a los cuales, como recordaran, ya se les privó inicialmente del acceso a su propiedad y, actualmente se les viene limitando dicho acceso ante la negativa de la empresa, Grupo Murias, explotadora del Parking rotatorio de la activación de las tarjetas de acceso a los propietarios de trasteros y la negativa de activación de duplicados de tarjetas a los propietarios de plazas de garajes que ven condicionado el uso de su plaza a la posesión de una única tarjeta.

Sirva como ejemplo que muchas de las plazas permiten el estacionamiento de más de un vehículo pudiendo ser usados por más de un miembro de la familia.

¿Alguien puede entender como varios miembros de una familia van a poder hacer uso de su propiedad con una sola tarjeta?

Quiero dejar claro a esta parte que el problema que traemos a colación es puramente municipal y le corresponde a este Consistorio dar una solución y hacer que la empresa explotadora cumpla con unos requisitos que son sobradamente conocidos. Sobre todo ante la existencia de una servidumbre de paso que tiene, legítimamente, la Comunidad de Garajes de la Calle Virgen del Carmen 9 y 11.

De la misma manera esta Comunidad está permitiendo el acceso por la rampa a todos los usuarios de Parking público y a los



Era berean, erkidego honek arrapala erabiltzen uzten die aparkaleku publikoko erabiltzaile guztiei eta bigarren solairuko plazen esleipendunei. Horregatik, bada, galdera hau egin nahi dizuegu: jabeen erkidegoak aparkalekuaren esleipena duen enpresak bezala jokatu beharko luke, eta, hartara, arrapala erabiltzen duen ibilgailu orori kobratu?

Ziurrenik pentsatuko duzue kontu honek ez duela zentzurik. Baina orain esango dizuedanarekin hobeto ulertuko duzue. Enpresa esleipendunari behar duten jabeekideei txartela aktibatu diezaiela eskatu izan zaio. Baina, enpresaren asmoa da bi txartel aktibo soilik ematea, erkidegoak aldeaz aurretik 193,23 euro ordainduta.

Enpresa esleipendunak zer mezu helarazi nahi digu? Txartela aktibatzeak 100 euro inguru balio duela sinestarazi nahi digute? Zein da negozioa, ibilgailuen sarrera aparkalekura edo jabeen erkidegoarentzako txartelen aktibazioa finantzatzea?

Erkidegoak bere garaian, hau da, bere plazak erabiltzeko baimena eman zitzaionean, aparkalekura sartzeko txartelak erosi zituen, aktibatu gabe, 10 eurotan bakoitza. Ziurrenik benetako kostua ez da eurora iritsiko. Eta orain ikusten dugu txartel horiek ez dutela ezertarako balio.

Ulertuko duzue, beraz, erkidegoa minduta dagoela Grupo Muriasen nagusikeriazko jarreragatik. Izan ere, jabeak babesgabe sentitzen dira, egoera honen biktima bakarrak direlako. Izan ere, ez ezazue pentsa jabetza pribatu batera iristeko aparkalekutik pasatu behar izatea onuragarria denik. Aitzitik, zama bat da, pribatutasuna eta denbora galtzen direlako sarbide inposatuaren sistema dela medio.

Esleipendunak ezin die eskatu jabeek hilean 9 euro ordain dezaten plaza bakoitzeko aparkalekutik igarotzeagatik. Hori da, hain zuzen, bigarren solairuko garajeen esleipendunek

adjudicatarios de las plazas de la segunda planta. Por esto nuestra pregunta es ¿Debe la Comunidad de propietarios actuar de la misma manera que la empresa concesionaria del Parking y cobra a todo vehículo que acceda por la rampa?

Probablemente pensarán que esta cuestión carece de sentido, pero lo entenderán mejor si les informamos que la empresa concesionaria a la que se le viene solicitando la activación de tarjetas para aquellos copropietarios que la necesitan, pretende, únicamente facilitar dos tarjetas activadas previo pago por la Comunidad de 193,23 euros.

¿Qué se nos quiere hacer ver por parte de la empresa concesionaria, que la activación de un tarjeta tiene un coste de aproximadamente 100 euros?, ¿Cuál es el negocio, la entrada de vehículos al Parking o la financiación por activación de las tarjetas para la Comunidad de propietarios?

La Comunidad ya adquirió, en el momento que se le permitió el acceso a sus plazas, tarjetas de acceso al Parking sin activar por un importe de 10 euros cada una, cuando su coste no llegará, probablemente, al euro, para ver, ahora, que las tarjetas no tienen ninguna utilidad.

Entenderán por tanto, el malestar de la Comunidad ante la actitud prepotente del Grupo Muriás que deja en clara indefensión a los propietarios, únicas víctimas de esta situación porque, que nadie piense que el tener que pasar por el Parking para acceder a una propiedad privada supone un beneficio, todo lo contrario, lo único que supone es una carga ante la pérdida de privacidad y la pérdida de tiempo se crea al traspasar el sistema de acceso impuesto.

Tampoco se puede pretender por la concesionario que el tener que pasar por el Parking los propietarios asuman un coste de cueto mensual de 9 euros por plaza, como hacen los adjudicatarios de la segunda plaza de garajes. Con esta cuota los adjudicatarios están cubriendo absolutamente todos los gastos inherentes de su propio comunidad, luz,



ordaintzen dutena. Kuota horren bidez esleipendunak komunitateari dagozkion gastu guzti-guztiak (ura, garbiketa eta abar) ordaintzen ari dira.

Zer eskatzen diete Virgen del Carmen kaleko 9. eta 11. atarrietako garajeen jabeei? Hilean 9 euro ordain dezaten soilik aparkalekutik igarotzegatik, eta, gainera, komunitateko gastuak ez ezik arrapaladaren mantentze-lanei lotutako gastuak ere euren gain har ditzaten?

Udalak ezin du ezentzunarena egin jabekideek duten arazoaren aurrean. Izan ere, jabekideen arazoa udal-aparkaleku batetik igaro beharregatik sortu da.

Horiek horrela, eta aparkalekuaren titularra udala denez, udalak ezin du onartu Konstituzioan jasotako printzipioen urraketa, kasu honetan, jabetza pribaturako eskubidearen urraketa.

Udalak berak esku hartu beharko luke egoera honetan, eta esleipenduna behartu beharko luke jabeen erkidegoak egoki irizten dituen txartel guztiak jaulkitzera. Izan ere, jabeei ezin die inolaz ere mugatu garaje eta trastelekuetarako sarbidea.

Eskerrik asko.

JON KARLA MENOIO LLANO.- Eskerrik asko hitz egiteagatik. Eman iezaguzu, mesedez, irakurritako testua, aktan sartu ahal izateko.

Garaje horietara iristeko aparkalekuaren enpresa esleipendunarekin duzuen arazoa aspaldikoa da. Enpresa eraikitzaileak eta enpresa esleipendunak hasieran izan zuten liskar baten ondorioa da. Sistematikoki esan dut, horrela delako, eta, bestela, joan zaitez bazkaltzera enpresa esleipendunarekin, eta haiek ere esango dizute. Baina ez duzu haiekin bazkaldu nahi, liskartuta zaudetelako.

Ez dut eztabaidan nahi, eztabaida hori itxita dagoelako jada. Baina egoera zertan den azaldu

limpieza, etc.

¿Qué se pretende de los propietarios de garajes de Virgen del Carmen 9 y 11, que paguen 9 euros mensuales simplemente por pasar y que además tengan que soportar los gastos de su propia Comunidad y los que generan el mantenimiento de esa rampa?

Lo que no puede consentir el Ayuntamiento es hacer oídos sordos a un problema que atañe a los copropietarios por el paso a un Parking cuya titularidad, en última instancia, es municipal.

Por lo tanto, siendo el Ayuntamiento titular de este Parking no puede permitir que se ataquen principios constitucionales como el del derecho a la propiedad privada.

Es el propio Ayuntamiento el que debe intervenir en dicha situación obligando al concesionario a que expidan todas las tarjetas que a bien disponga la Comunidad de propietarios puesto que en modo alguno le puede limitar el acceso a sus plazas de garajes y trasteros.

Gracias.

JON KARLA MENOIO LLANO.- Quiero agradecerle tu intervención. Te agradecería que nos facilitaras el texto que has leído para incorporarlo al acta.

Quiero decirte que el problema de acceso a esos garajes por medio de la Concesionaria del Parking es un problema antiguo que deriva de un enfrentamiento inicial entre la empresa constructora y la empresa concesionaria. Lo he dicho sistemáticamente porque es así y si no te invito a que vayas a comer un día con la empresa concesionaria, a ver si vas. No tienes ganas porque estáis enfrentados.

No quiero abrir un debate que está cerrado, quiero explicar cómo está la situación.

En el mes de julio de 2010, como Ayuntamiento tuvimos una reunión porque nos



nahi dut.

2010ko uztailen, bilera izan genuen, Udal gisa enpresa eraikitzailearen eta enpresa esleipendunaren arteko liskarrean bitartekaritzalanak egiteko. Garaje pribatuak okupatzeko baimenak emanda zeudenez, auzokoak garajeetara sartzen zirenez eta auzo-erkidegoa sortzen ari zenez, uztailen bilera izan genuen, ulertzen genuelako Udalak, artekari gisa, arazoa konpontzeko aukera gehiago izan zitzakeela.

Bilera horretan giro ona izan zen, baina argi geratu zen zaila izango zela akordioen bat lortzea. Horregatik, auzo-erkidegoak erabaki zuen bere komunitatea esleipendunetik erabat aparte ebaztea eta kudeatzea. Guk okerra iritzi genion erabaki horri, baina errespetatu genuen, batez ere, bilera horretan mahai gainean jarri zelako kontu ekonomiko nimiño bat.

Eskubide osoa zuten ez onartzeko, baina eragin ekonomikoa irigarria zen, zehazki, 0,37 zentimo hilean partzela bakoitzeko. Guretzat hori zen sarbidea eta hari lotutako zerbitzuak kudeatzeko modurik onena. Gure ustez, sistema horren bidez, kontu honek kalteetako alderdi guztien betebeharrak eta interesak uztartzen ziren.

Hori gure iritzia zen, eta zilegi da harekin ados ez egotea. Esan bezala, errespetatzen dugu. Azkenean, beraz, beste bidetik jotzea erabaki zuten. Hartutako erabakiaren arabera, alderdi bakoitzak bere arazoi helduko zion, bakoitza bere aldetik. Ondorioz, jabeek arduratu beharko zuten txartelak kudeatzeaz eta txartelok gaitzeaz. Zuek egin behar zenituzten, bai. Horretarako, enpresa esleipendunaren instalazioa erabili beharra zegoen.

Alkate gisa esan behar dut orduan erabaki hori hartu zela. Txartelak egin ziren, eta nik ez dut izan inolako arazoren berri, harik eta duela 15 edo 20 egun pertsona baten mezu elektrikoa jaso nuen

prestamos a mediar en el conflicto que había entre la empresa constructora y la concesionaria. En el mes de julio tuvimos una reunión en la que, entendiendo que ya se había dado los permisos para la ocupación de los garajes privados y que ya entraban vecinos y que se gestaba una Comunidad de Vecinos considerábamos que el Ayuntamiento pudiera tener ahí, como mediador, más posibilidades de resolver el problema, y lo hicimos.

En esa reunión, que fue cordial, quedó patente que era difícil llegar a un acuerdo y que, por tanto, la Comunidad de vecinos decidía resolver y gestionar si comunidad independientemente de la concesionaria. A nosotros nos parecía un error pero lo respetamos, sobre todo porque también es cierto que en aquella reunión se puso encima de la mesa una cuestión económica que tenía una incidencia ridícula.

Se tiene todo el derecho del mundo a no aceptarlo, pero la incidencia económica era ridícula, en concreto de 0,37 céntimos mensuales por parcela. A nosotros nos parecía que era la mejor forma de gestionar lo que es la entrada y sus servicios porque entendíamos que se conciliaban obligaciones e intereses de todas las partes que están afectadas en ese ámbito, simplemente por esa razón.

Esa era una opinión nuestra que se puede no compartir, cuestión que nosotros respetamos, pero se decidió hacerlo así. La conclusión de esa decisión era que cada parte resolvía su problema. Esto implicaba que las tarjetas y su habilitación las debían hacer los propietarios, las debíais de hacer vosotros. Para eso se tenía que utilizar la instalación de la concesionaria.

Como Alcalde, tengo que decir que aquello se decidió así, que se hicieron las tarjetas y que no he tenido conocimiento de ningún problema en ese sentido hasta hace 15 o 20 días que recibo en mi despacho un e-mail de una persona que me dice que ha perdido su tarjeta y que no puede acceder al Parking.



arte. Mezu horretan azaltzen zuen txartela galdu zuela eta ezin zuela aparkalekura sartu.

Nire aburuz, eta 2010eko ekainean izan genuen bileraren arabera, txartela galtzen duen pertsonak ez du Udalera jo behar, baizik eta jabeen erkidegora.

Aste bat geroago, PSE-EEko udal-taldeko bozeramaileak deitu zidan esateko arazoak bere horretan jarraitzen zuela. Eman dizuedan azalpen bera eman nion. Egoera ikusita, harremanetan jarri nintzen garajeen kudeaketaren arduradunarekin eta hark bere azalpenak eman zizkidan. Azken batean, enpresa esleipendunari esan nion ordenagailuan sartzera behartuta zeudela, aipatutako txartelak gaitzeko, baina haiek esan zidaten hori ez zela horrela.

Ondoren, bi txarteletarako aurrekontua bidali zidaten, 193 eurotan. Udalak ez du zerikusirik kontu honekin. Udalak ez du bere iritzia emango txartel bat gaitzeak balio duenaren gainean. Jabeen kontu pribatua da, ez dugu horri buruz eztabaidatu behar. Izan ere, arazo hau bere garaian hartutako erabakiaren ondorioa da. Udalak zainduko duen gauza bakarra da egin nahi diren txartel guztiak benetan egitea, baina kostuari lotutako alderdian ez gara sartuko. Udalak ezin du txartelen kostua bermatu.

Udala bitartekaria izaten saiatu zen, eta koherenteagoa iruditzen zaigun kudeaketa-sistema bat bultzatzen saiatu ginen. Dena den, esan bezala, errespetatzen dut iritzi hori ez izatea. Dena den, gure aburuz, bakoitzak hartzen dituen erabakien jakitun izan behar du. Hartutako erabakien bidez, txartelak dohainik lortzeko aukera izango bazenute, Udala ez zatekeen prezioaren kontuan sartuko.

Udalak duen betebeharrak bakarra da, jabe guztiak aparkalekutik pasa daitezela bermatu behar duela. Hori da Udalaren betebeharrak. Txartela gaitzeak izan dezakeen prezioa entitate pribatuen arteko kontua da, eta gu horretan ezin gara sartu.

Lo que interpreto, en función de la reunión que tuvimos en junio de 2010, es que la persona que pierde la tarjeta no se debe dirigir al Ayuntamiento sino a la Comunidad de propietarios.

Una semana más tarde me llama la portavoz del Grupo Político Municipal PSE-EE diciéndome que ese problema perdura. Le día la misma explicación que he dado aquí. Vista la situación me pongo en contacto con el responsable de la gestión de los garajes y me lo explica. En definitiva traslado a la empresa concesionaria que tienen la obligación de soportar la entrada en el ordenador para habilitar las tarjetas y a mí me reconocen que eso es así

Posteriormente me envían un presupuesto para dos tarjetas por importe de 193 euros. Esto es una cuestión ajena al Ayuntamiento. El Ayuntamiento no va a entrar a valorar lo que cuesta habilitar una tarjeta, no tiene porque entrar en lo que es una cuestión privada en la que los propietarios, en función de la decisión que tomaron, tiene que soportar unas consecuencias. Desde el Ayuntamiento lo que se va a velar es que se hagan todas las tarjetas que se quieren hacer, pero no por su coste. El Ayuntamiento no puede garantizar su coste.

El Ayuntamiento quiso mediar para intentar conciliar un sistema de gestión que nos parece mucho más coherente, aunque respeto que no se quiera ver así. Lo que sí que creemos es que cada uno debe de ser consecuente de las decisiones que toma. Si con las decisiones que habéis tomado las tarjetas os hubieran salido gratis el Ayuntamiento no habría entrado en el precio.

La obligación que tiene el Ayuntamiento es la de garantizar que todo propietario pueda pasar por ahí. Es la única obligación del Ayuntamiento, lo que cueste la habilitación de una tarjeta es una cuestión entre privados en las que no debemos entrar.

Cada uno debe de ser consecuente con las decisiones que ha tomado.



Berriro diot, bakoitzak hartzen dituen erabakiek izan ditzaketen ondorioen jakitun izan behar du.

1.-Alkateak hitza eman dio Virgen del Carmen kaleko 9. eta 11. atarrietako bizilagunen ordezkariari.

Oker ez banago, Grupo Muriasekin egindako negoziazio hartan, talde hori izan zen, hain zuzen, prezioaren gaineko akordioa lortzekotan ginela, erabaki zuena preziorik ez ezartzea, haien esanetan, "*gitaneria*" hutsa zelako.

Beraz, ez zen jabe-erkidegoaren erabakia izan dirurik ez kobratzea aparkalekutik pasatzeagatik. Enpresaren erabakia izan zen, eta gaur egun ikusten ari garena ikusita, erabaki horren asmoa izan zen sarbidea ukatzea eta ahalik eta oztopo gehien jartzea. Izan ere, prezioari buruz hitz egin nahi ez baduzue ere, txartelagatik 100 euro ordaindu behar izatea abusua da. Ezin dugu preziorik zehaztu, baina jakin badakizu zein den gauzen prezio logikoa. Zentzu komuna dugu, baina, kasu honetan, galtzen ari garela esango nuke. Herritar batzuei euren etxera sartzea eragozten zaie. Euren etxera sartzea, bai, gezurra badirudi ere, horretaz ari gara.

JON KARLA MENOIO LLANO.- Udalak eskubide hori urratu ez dadin zaindu behar du. Hortaz, urratzen bada, Udalak esku hartu behar du.

Prezioan, ordea, Udalak ez du sartu behar. Ez prezio honetan ez bestelako prezioetan.

Uztaileko bilera aipatu duzu. Ez zait gustatzen xehetasunik ematea, baina aipatu denez, eta denok ezagutzen dugun kontua denez, egoki deritzot aipatzeari. Bilera horretan jabeen erkidegoak esan zuen prest zegoela 130 euro ordaintzeko hilean, hainbat zerbitzurengatik. Esleipendunak 150 euro eskatzen zituen, zerbitzu berberengatik. Partzela bakoitzeko, beraz, 0,37 euro ordaindu behar ziren hilean. Hau da,

1.-El Alcalde otorga la palabra a la representación de los vecinos de la calle, Virgen del Carmen, 9 y 11.

Creo recordar que en aquella negociación con el Grupo Murias fue, precisamente, este Grupo quien, cuando se estaba llegando a un acuerdo de precio, decidió, unilateralmente, no fijar ningún precio porque entendían que era una "*gitanería*", palabras textuales.

No fue la Comunidad de propietarios la que no decidió no pagar ningún importe por pasar sino que, unilateralmente, así lo hizo y creemos, por la situación en la que nos estamos viendo, que con esta intención, la de negarnos el acceso o ponernos todas las trabas porque el pagar 100 euros por una tarjeta, aquí nadie entra en el precio, es un abuso. No podemos fijar muchos precios pero entendemos cuál es el precio lógico de las cosas. Tenemos sentido común y, en este caso, se está perdiendo. Se está privando a unas personas a ir a su casa, que parece mentira que estemos hablando de eso, de ir a su casa.

JON KARLA MENOIO LLANO.- Por lo que el Ayuntamiento tiene que velar es porque ese derecho no se prive, por tanto, si se priva, el Ayuntamiento debe intervenir.

En el precio el Ayuntamiento no debe entrar porque no debe de entrar, ni en ese, ni en ningún otro.

Ya que apelas a aquella reunión, no me gusta entrar en detalles, pero creo que es oportuno decirlo ya que se ha venido aquí y lo conocemos todos. En esa reunión se ofrecía, por parte de la Comunidad de propietarios, 130 euros al mes por una serie de servicios. La concesionaria pedía 150 euros mensuales por los mismos servicios. Si eso lo pasamos a ratio por parcela resultan 0,37 céntimos de euro mensuales. Esto, en cuanto a gestión del entramado físico del Parking público y del privado, se gestionaba mucho mejor dando la



aparkaleku publikoaren eta pribatuaren egitura fisikoaren kudeaketa enpresa bakar baten eskuetan utziz gero, hobeto kudeatuko zatekeen.

Ulertzen dut, batzuek ez badute horrela ikusten. Baina, ere berean, erabakia hartu zutenek euren erantzukizuna onartu behar dutela jotzen dut.

Bizilagunek euren partzeletara sartu ahal izatea, horixe da Udalak bermatu behar duena, eta egiten ari da, bai horixe.

2009ko maiatzaren 29ko Dekretua irmoa da, eta agiri horretan alderdien eskubideak eta betebeharrak jasota daude. Hori da, bada, bete beharrekoa. Dekretu horretatik datoz hizpide ditugun alderdi guztiak.

Dekretua hasiera-hasieratik bete izan balitz, hori egingo zela esan zen-eta, ziurrenik ez genituzke arazo hauek izango.

Kezkatzen gaitu, bai, bizilagunak tartean zaudetela ikusteak. Zentzu komunaren faltak eragin du egoera hau.

Osoko Bilkura honetan esan dut jada, eta berriro diot, ez dut Muriasen jokabidea zurituko, ez eta Promociones Hermanos Unzagarena ere. Halaber, geroago hartutako erabakirik ere ez dut justifikatuko. Hain zuzen, erabaki horiek ekarri gaituzte egoera honetara.

Udalaren betebeharra da aparkaleku pribatuko jabe bakoitzak askatasun osoz sartzeko eta irteteko duen eskubidea bermatzea.

TXARO SARASUA DIAZ.- Elkartasuna adierazi nahi diet bizilagunei, eta jakin bezate bizi duten egoerak kezkatzen nauela.

Ulertzen dut Udalak ezin duela enpresa pribatu baten kudeaketan esku hartu. Baina, era berean, onartu behar da abusu handiaren lekuko izaten ari garela.

Agian, kontsumitzaile eta erabiltzaile diren

responsabilidad a una sola empresa.

Entiendo que alguien no lo vea así, pero de la misma manera entiendo que la responsabilidad de esa decisión la debe asumir quien lo ha tomado.

El Ayuntamiento debe proteger que los vecinos tengan acceso a sus parcelas y es lo que está haciendo.

Hay un decreto de 29 de mayo de 2009, que es firme, en el que se fijan derechos y obligaciones a las partes, y que es el que hay que cumplir. En función de este decreto es del que derivan todas estas cuestiones

Si se hubiese asumido desde el principio, como se dijo que se iba a hacer probablemente todo esto no se hubiera producido.

Nos preocupa mucho que los vecinos estéis en el medio. Creo que esto es fruto de que ha habido poco sentido común.

Lo he dicho en este Pleno y lo vuelvo a repetir, yo no voy a justificar a Murias pero tampoco voy a justificar a Promociones Hermanos Unzaga. Tampoco voy a justificar decisiones que se han tomado con posterioridad y que han propiciado estas situaciones.

La obligación que tiene el Ayuntamiento es la de velar porque cada propietario del Parking privado pueda entrar y salir con absoluta libertad.

TXARO SARASUA DÍAZ.- Yo quiero solidarizarme con los vecinos y sentir mucho la situación que están viviendo.

Entiendo que el Ayuntamiento no debe entrar en la gestión de una empresa privada, pero también entiendo que se está dando un uso abusivo de lo que está pasando.

Quizás tengan derecho, como consumidores y usuarios y tengan que acudir a otra institución a solicitar una mediación y/o arbitraje para conseguir sus derechos.



aldetik, beste erakunde batera jo beharko lukete, euren eskubideen artekari gisa joka dezan.

Aurrekontuak idatziz eman behar dizkiete; ez dakit ez ote dizkieten posta elektronikoz bidali. Aurrekontuetan, bada, txartel bakoitzaren kostua eta aktibazioaren kostua zehaztu behar da. Nik dakidala, eta apur badakit gai honi buruz, enpresa bat nonbaitera doanean txartelak aktibatzen ez du zertan aktibatuko dituen txartelen kopurua mugatu behar.

Jakina, jabeen elkargoak kopuru zehatz bat eskatzen badu, txartel bakoitzagatik dagokion dirua ordaindu beharko du, bai eta irteera-prezioa ere.

Horiek horrela, ez dut enpresa pribatu baten kudeaketan sartu nahi, baina gauza bat ez dut ulertzen, eta esan bezala badakit zerbait gai honetaz, eta kontua da zergatik 193,24 euro ordainduta bi txartel baino ez dituzten aktibatu nahi.

Edonola ere, orain arte garajeen gainen izan diren eztabaidetan, Udalak ez du esku hartu enpresa pribatuen kudeaketan, baina beti egin du erabakiak idatziz jasotzearen alde. Udala ordezko erantzulea da, zerbitzu publiko baten esleipen administratiboaz ari gara-eta. Izan ere, aparkaleku hori publikoa da, eta, edonola ere, jabeek lurzoru publikotik igaro behar dute euren jabetza pribatuetara iristeko, eta kontuan izan behar dugu jabetza horiengatik zergak ordaintzen dituztela.

Horregatik, alkateak esan du Udalak ez duela esku hartu behar prezioak finkatzeko orduan. Horrekin ados nago. Halere, EAJk gatazka honen gainean duen iritzia eman du, eta gu ez gara ez alderdi baten ez bestearen alde lerratuko.

Gure aburuz, euren garaje pribatuetara iritsi nahi duten pertsona guztiei erraztu behar zaie sarbidea. Prezioa ez da Udalaren erantzukizuna, horretan ados nago alkatearekin. Dena den, kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dagozkizuen

Entiendo que los presupuestos se los tienen que facilitar por escrito, no sé si se los han enviado por e-mail. En esos costes debe de figura el coste unitario de la tarjeta y el coste de su activación. Una empresa cuando acude a un lugar, acude, hasta donde tengo conocimiento, y algo sé de este tema, acude a activar pero no tiene que limitar la activación del número de tarjetas.

Evidentemente, si la comunidad de propietarios solicita un número determinada tendrá que cobra el coste unitario por tarjeta y el precio de salida.

Por lo tanto, no hay algo que yo no entiendo y, desde luego, no me estoy metiendo en la gestión de una empresa privada pero, desde luego, algo sé de esto, hay algo que no me encaja, que únicamente quieran activar dos tarjetas al precio de 193,23 euros.

En cualquier manera, en todo el debate anterior que ha habido sobre el tema de garajes, siempre nos hemos posicionado, sin meternos en la gestión de empresas privadas, desde este Ayuntamiento las cosas deben recogerse por escrito porque, al final, nosotros somos responsables subsidiarios, no deja de ser una concesión administrativa de un servicio público, porque al final es un Parking público y, desde luego, los propietarios tienen que pasar por un suelo público para acceder a sus propiedades privadas y por las que pagan sus impuestos.

Por lo tanto, cuando el Alcalde dice que el Ayuntamiento no entra en la fijación de precios, estoy totalmente de acuerdo pero, sin embargo, el PNV también da su posición respecto a este conflicto y nosotros no nos vamos a posicionar, ni por una empresa ni por otra.

Desde luego, entendemos que a todas las personas que tienen que acceder a sus garajes privados hay que facilitarles el acceso. El precio no es cuestión del Ayuntamiento, lo comparto con el Alcalde pero, sí es cierto que es muy interesante que ustedes ejerzan sus derechos como consumidores y usuarios y que acudan al organismo pertinente a exigirlos.



eskubideak baliatu beharko zenituzkete eta, horregatik, dagokion erakundera jo beharko zenukete.

Frogarik ez dut, baina jakin badakit txantxa email-en bat bidali dela. Gai honetan, ordea, serio jokatu behar dugu. Izan ere, azkenean, beste batzuen arteko liskarren biktima izaten ari dira, eta badaude liskar horiek konpontzeko beste erakunde batzuk.

Berriro diot, arazo hau ahalik eta azkarren konpontzea nahi dugu. Horretarako, baina, borondatea ezinbestekoa da. Lehen babespe partekatuz hitz egin dugu, eta gai honetan ere ikusten da adostasuna oso garrantzitsua dela. Alderdiek adostasunik ez badute, aitaren eta amaren artean dauden seme-alabak, edo kasu honetan, bi enpresen artean dauden herritarrak biktimak dira, eta nekez lortuko dute garaje-plazetara sartzea.

Horregatik guztiagatik, akordioaren bat lotu beharko litzateke, gaia, gainera, sinplea da, txartelak aktibatzeaz ari gara-eta. Prest daude prezio bat ordaintzeko, baina prezioak ezin du neurritz kanpokoa izan, zergatik eta enpresen arteko desadostasun batzuentzat.

JON KARLA MENOIO LLANO.- Ni ez dut ulertu zergatik aipatu duzun babespe partekatua.

Ados nago Talde Sozialistako bozeramaileak esan duenarekin. Ezin dute txartelen kopurua mugatu.

